

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

2017ko urtarrilaren 16ko 41/2017 FORU AGINDUA, informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredu onartzen duena.

Ekainaren 20ko 3/2016 Foru Arauak, Gipuzkoako zerga ordenamendua ELGAren barruan adostutako akordioetara eta Europar Batasuneko zenbait zuzentarau eta epaitara egokitzen duenak, aldaketa garrantzitsuak sartu ditu urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak erregulatzen duen sozietateen gaineko zergan, pertsona eta entitate lotuen artean egindako eragiketegi dagokionez.

Zehazki, foru arauan islatzen dira Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) «BEPS» ekintza planaren barruan landutako konklusioak (zerga oinarriaren higadurari eta mozkinen lekualdaketa aurre egiteko plana), hain zuzen ere 13. ekintzarekin lotuta (entitate eta eragiketa lotuen inguruko informazio eta dokumentazioa). Horretan oinarrituta, berritasun moduan, informazioa herrialdez herrialde aurkeztu beharra ezartzen da, merkataritza talde batek transferentzia prezioen politikan dituen arriskuak ebaluatzea ahalbidetzeko, baina Zerga Administrazioarentzat prezioak doitzeko tresna bat inoiz ere izan gabe. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako eskatuko da informazio hori, foru agindu honek onartutako ereduaren bitartez.

Alde horretatik, urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, herrialdez herrialdeko informazioa aurkezteko betebeharra ezartzen du 43. artikuluan 10. apartatuan, eta 43. artikuluan horren 11. apartatuan informazio horren edukia zehazten du.

Informazio hori eman beharra ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 20 bis artikulua berriak garatzen du, zeina abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuak sartu baitu erregelamenduan, hain zuzen ere pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamendua aldatu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituenak. Artikulu horrek ezartzen du Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko duela informazio obligazio hori betetzeko aurkeztu beharreko aitopen eredu, eta, orobat, berak erabakiko duela zer kasu eta zer baldintzatan bete beharko den obligazio hori bitarteko elektronikoko erabilita. Era berean dio informazioa aurkezteko epea zergaldia amaitu eta hamabi hilabetera bukatuko dela.

Bestalde, aipatu beharra dago duela gutxi onartu dela Europako Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko 2016/881 Zuzentaraua, hain zuzen ere 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena fiskalitatearen esparruan informazioa automatikoki trukatzeko derrigortasunari dagokionez. «Enpresa multinaziona-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

ORDEN FORAL 41/2017, de 16 de enero, por la que se aprueba el modelo 231 de declaración de información país por país.

La Norma Foral 3/2016, de 20 de junio, por la que se introducen determinadas modificaciones para adaptar el ordenamiento tributario foral a diversos acuerdos alcanzados en el seno de la OCDE, así como a directivas y sentencias de la Unión Europea, ha introducido modificaciones sustanciales en el Impuesto sobre Sociedades, regulado por la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, en relación con las operaciones realizadas entre personas y entidades vinculadas.

Concretamente se hace eco de las conclusiones adoptadas en el denominado Plan de acción «BEPS», esto es, el Plan de acción contra la erosión de la base imponible y el traslado de beneficios que se elabora en el ámbito de la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico (OCDE) y, en concreto, en relación con la acción 13 relativa a la información y documentación de las entidades y operaciones vinculadas. En base a ello, se introduce como novedad la información país por país, como instrumento que permitirá evaluar los riesgos en la política de precios de transferencia de un grupo mercantil, sin que en ningún caso dicho instrumento pueda servir de base a la Administración tributaria para realizar ajustes de precios. Esta información será exigible para los períodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2016 a través del modelo aprobado por esta orden foral.

En este sentido, el apartado 10 del artículo 43 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa establece la obligación de aportar la información país por país, cuyo contenido se concreta en el apartado 11 del citado artículo 43.

Esta obligación de suministro de información se desarrolla en el artículo 20 bis del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, el cual ha sido introducido por el Decreto Foral 28/2016, de 20 de diciembre, por el que se modifican los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, y se aprueban los coeficientes de actualización aplicables en 2017 para la determinación en ambos Impuestos de las rentas obtenidas en la transmisión de elementos patrimoniales. Este artículo prevé que la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas aprobará el modelo de declaración que deberá presentarse para el cumplimiento de esta obligación de información, así como la forma de presentación y, en su caso, los supuestos y condiciones en que la obligación deberá cumplirse por medios electrónicos. Establece, asimismo, que el plazo para presentar la información concluirá transcurridos doce meses desde la finalización del período impositivo.

Asimismo, hay que mencionar la reciente aprobación de la Directiva (UE) 2016/881 del Consejo, de 25 de mayo de 2016, que modifica la Directiva 2011/16/UE en lo que respecta al intercambio automático obligatorio de información en el ámbito de la fiscalidad. La citada Directiva regula en el ámbito de la

len taldeek» ekitaldi fiskal bakoitzeko herrialdez herrialde urtero aurkeztu behar duten txostena Europar Batasunean arautzea du xede aipatutako zuzentarauak, eta harekin bermatu nahi da Batasun osoan informazio bera biltzen dela eta zerga administrazioei behar den eran helarazten zaiela.

Zentzu horretan, 2011/16/UE Zuzentarauaren 8 bis bis artikuluko 3. apartatua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 43. artikuluko 11. apartatua aipatzen den informazioa herrialdez herrialde emateko obligazioa dute lurralde espainiarrean egoiliar diren entitateek, baldin eta, 2/2014 Foru Arauaren 32.3 artikuluan ezarritako eran definitutako talde bateko entitate nagusiak izanik, aldi berean beste entitate baten menpe ez badaude. Orobat, eta aipatutako foru arauaren 43.10 artikuluan jasotzen diren zirkunstantzietako edozein betetzen bada, honako hauek ere eman behar dute informazio hori: lurralde espainiarrean egoiliar diren eta, zuzenean edo zeharka, entitate ez-egoiliar baten mende dauden entitateek –entitate hori ezin da izan aldi berean beste entitate baten menpekoa–, eta entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek.

Bestalde, urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 43.10 artikuluan jasotzen duenez, lurralde espainiarrean egoiliar diren entitateak herrialdez herrialdeko informazioa aurkeztera behartuta dagoen talde bateko entitate nagusiak badira, informazio hori prestatu behar duen entitatearen identifikazioa eta egoitzako herrialde edo lurraldea jakinarazi behar dizkiote zerga administrazioari. Komunikazio hori urtero egin behar da, informazioan aipagai den zergaldia amaitu aurretik, eta bertan adierazi behar da informazioa zein zergapekok aurkezten duen eta zeren arabera egiten duen hori, hau da, entitate nagusi gisa, menpeko entitate behartu gisa edo entitate subrogatu gisa. Komunikazio hori egiteko edozein bitarteko erabili badaiteke ere, gauzak errazte aldera, zergadunek Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez eman ahal izango dute informazioa.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 231 eredu onartzea.

Onarturik geratzen da «Informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredu», foru agindu honetako eranskinean ageri den edukia araberakoa.

Mezu informazioak bidali behar badira lehendik aurkeztu den eta zergaldi berberari dagokion aitorten baten aitorten osagarriak edo ordezkioak egiteko, mezu informatiko horiek bidaliko dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa aurkezpenaren unean ezartzen diren beharkizun teknikoak jarraituz. Egoitza elektronikoa sartzeko, helbide honetara jo ahal izango da: <http://www.gipuzkoa.eus>.

2. artikulua. 231 ereduaren edukia.

1. Informazioa herrialdez herrialde aurkezteko aitortenak informazio hau bilduko du, modu agregatuan eta herrialde edo jurisdikzio bakoitzeko, entitate nagusiaren zergaldiari dagokionez:

- Taldearen sarrera gordinak, entitate lotuekin edo hiru garrenekin lortutakoak bereizita.
- Sozietateen gaineko zerga edo izaera bera edo antzekoa duten beste zerga batzuk aplikatu aurreko emaitzak.
- Ordaindu diren sozietateen gaineko zergak edo izaera bera edo antzekoa duten beste zerga batzuk, jasandako atxikipenak barne.
- Sortutako sozietateen gaineko zergak edo izaera bera edo antzekoa duten beste zerga batzuk, atxikipenak barne.

Unión Europea el informe país por país que los «grupos de empresas multinacionales» deben facilitar cada año y para cada territorio fiscal en el que operen, con el objeto de garantizar que en toda la Unión se recopile la misma información y se facilite oportunamente a las Administraciones tributarias.

En este sentido, deberán aportar la información país por país, a que se refiere el artículo 8 bis bis apartado 3 de la Directiva 2011/16/UE introducido por la Directiva (UE) 2016/881 y el apartado 11 del artículo 43 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, las entidades residentes en territorio español que tengan la condición de dominantes de un grupo, definido en los términos establecidos en el artículo 42.3 de la citada Norma Foral 2/2014 y que no sean al mismo tiempo dependientes de otra entidad. También deberán de aportar esta información las entidades residentes en territorio español dependientes, directa o indirectamente, de una entidad no residente en territorio español que no sea al mismo tiempo dependiente de otra o establecimientos permanentes de entidades no residentes, siempre que se produzcan cualquiera de las circunstancias previstas en el artículo 43.10 de la norma foral mencionada.

Por otra parte, es necesario señalar que, tal y como se establece en el artículo 43.10 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, cualquier entidad residente en territorio español que forme parte de un grupo obligado a presentar la información país por país, deberá comunicar a la Administración tributaria la identificación y el país o territorio de residencia de la entidad obligada a elaborar esta información. Esta comunicación deberá de efectuarse cada año antes de la finalización del período impositivo al que se refiera la información y deberá mencionar quién es el obligado que presenta y si lo hace en condición de entidad matriz, entidad filial obligada o entidad subrogada. Si bien esta comunicación puede realizarse por cualquier medio, para facilitar su realización se pondrá a disposición de los contribuyentes la posibilidad de comunicar la información a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación del modelo 231.

Se aprueba el modelo 231 «Declaración de información país por país», cuyo contenido figura en el anexo de la presente orden foral.

La presentación de los mensajes informáticos por medio de los cuales se presenten las declaraciones complementarias o sustitutivas de otra declaración presentada anteriormente que se refiera al mismo período, se realizará de acuerdo con los requisitos técnicos que consten en el momento de la presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se podrá acceder a través de la dirección <http://www.gipuzkoa.eus>.

Artículo 2. Contenido del modelo 231.

1. La declaración de información país por país comprenderá, respecto del período impositivo de la entidad dominante, de forma agregada, por cada país o jurisdicción, la siguiente información:

- Los ingresos brutos del grupo, distinguiendo entre los obtenidos con entidades vinculadas o con terceros.
- Los resultados antes del Impuesto sobre Sociedades o impuestos de naturaleza idéntica o análoga al mismo.
- Los impuestos sobre sociedades o impuestos de naturaleza idéntica o análoga satisfechos, incluyendo las retenciones soportadas.
- Los impuestos sobre sociedades o impuestos de naturaleza idéntica o análoga al mismo devengados, incluyendo las retenciones.

e) Zergaldia amaitzen den egunean kapitala zenbatekoa den eta banatu gabeko emaitzak zein diren.

f) Batez besteko plantilla.

g) Diruzaintza eta kreditu eskubideak ez diren aktibo materialak eta higiezinetakoinbertsioak.

h) Entitate egoiliarren zerrenda, establezimendu iraunkorrrak eta haietako bakoitzak egindako jarduera nagusiak barruan sartuta.

i) Garrantzitsutzat jotzen den beste edozein informazio, eta, hala bada, gogokio, informazioan jasotako datuen azalpena.

2. Lurralde espainiarreko entitate egoiliarra informazioa herrialdez herrialde ematera behartuta dagoen talde bateko kide bada, informazioa prestatu behar duen entitatearen identifikazioa eta haren egoitzako herrialdea edo lurraldea ere adierazi beharko dira.

3. artikulua honetan ezarritako informazioa eurotan eman behar da.

3. artikulua. 231 ereduaren aurkezteko epea.

«Informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredu» hamabi hilabeteko epean aurkeztuko da, eman behar den informazioari dagokion zergaldia amaitzen denetik aurrera.

4. artikulua. 231 ereduaren aurkezpen elektronikoa. Baldintza orokorrak eta prozedura.

1. «Informazioa herrialdez herrialde aitortzeko 231 eredu» Internet bidez aurkeztuko da, bide telematikoa erabilita, hurrengo apartatuetan jasotzen diren baldintza orokorre jarraituz:

2. Urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko betebeharrak arautzen duenak, 2. eta 3. artikuluetan jasotako baldintzei eta prozedurari jarraituz egingo da aitortpenaren aurkezpen elektronikoa, eta, horretarako, egoitza elektronikoa 231 eredu elektronikoki bidaltzeko zerbitzua ere ezarriko da Gipuzkoako zerga administrazioak bitarteko elektronikoz egiteko eskaintzen dituen gainerako izapide, prozedura eta zerbitzuekin batera.

Hartara, informazioa herrialdez herrialde aurkezteko aitortpenaren mezu informatikoei bat etorri beharko dute foru agindu honen eranskinean ageri den edukiarekin.

Aurrekoa hala izanik ere, urteko aitortpen informatibo honen berezko ezaugarriak direla-eta, aipatu dugun 1/2016 Foru Aginduaren 3. artikuluko 2. apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko.

Aitortpenak akatsik izanez gero, errefusatzeko arrazoirik ematen ez duten erregistroak bakarrik onartuko dira. Kasu horretan, erantzunaren mezu informatikoa jasoko ditu onartu eta errefusatu diren erregistroen zerrendak, haiek ez onartzeko arrazoia adierazita. Errefusarik gertatuz gero, entitate nagusiak, menpekoak edo subrogatuak beharrezko zuzenketak egin beharko ditu, eta berriro aurkeztu beharko du aitortpena, errefusatzeko erregistroak barruan sartuta. Erregistroetako bat onartzen bada, erantzunaren mezu informatikoa 16 karaktereko ziurtapen kode seguru bat izango du, aurkezpen datarekin eta orduarekin batera.

5. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua.

Informazioa herrialdez herrialde aurkezteko aitortpena osatzen duten mezu informatikoen formatua eta diseinua eta, orobat, foru agindu honen eranskinean definitutako edukien elementuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa une bakoitzean agertzen direnak izango dira. Egoitza elektronikoa sartzeko, helbide honetara jo ahal izango da: <http://www.gipuzkoa.eus>.

e) El importe de la cifra de capital y resultados no distribuidos existentes en la fecha de conclusión del período impositivo.

f) La plantilla media.

g) Los activos materiales e inversiones inmobiliarias distintos de tesorería y derechos de crédito.

h) La lista de entidades residentes, incluyendo los establecimientos permanentes y actividades principales realizadas por cada una de ellas.

i) Otra información que se considere relevante y una explicación, en su caso, de los datos incluidos en la información.

2. Cuando la entidad residente en territorio español forme parte de un grupo obligado a presentar la información país por país, se deberá de suministrar también, la identificación y el país o territorio de residencia de la entidad obligada a elaborar esta información.

3. La información establecida en este artículo se presentará en euros.

Artículo 3. Plazo de presentación del modelo 231.

La presentación del modelo 231 de «Declaración de información país por país» se podrá realizar desde el día siguiente a la finalización del período impositivo al que se refiera la información a suministrar hasta que transcurran doce meses desde la finalización de dicho período impositivo.

Artículo 4. Forma de presentación, condiciones generales y procedimiento para la presentación electrónica del modelo 231.

1. La presentación del modelo 231 «Declaración de información país por país», se efectuará por vía telemática a través de Internet, de acuerdo con las condiciones generales previstas en los apartados siguientes.

2. La presentación electrónica de la declaración se realizará con sujeción a las condiciones y al procedimiento establecidos en los artículos 2 y 3 de la Orden Foral 1/2016, de 4 de enero, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos, para lo cual, en la sede electrónica se incluirán junto con el resto de trámites, procedimientos y servicios de la Administración tributaria foral que pueden realizarse por medios electrónicos, el servicio de remisión electrónica del modelo 231.

A tal efecto, deberán presentar los mensajes informáticos en que consiste la declaración de información país por país ajustados al contenido que figura en el anexo de esta orden foral.

No obstante lo anterior, y debido a las características inherentes a esta declaración informativa anual, no será de aplicación lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 3 de la Orden Foral 1/2016 citada anteriormente.

Si la declaración contuviera errores, sólo se aceptarán aquellos registros para los que no exista motivo de rechazo. En este caso, el mensaje informático de respuesta contendrá las relaciones de registros aceptadas y rechazadas junto con la expresión del motivo por el que no hayan sido aceptadas. En caso de rechazo, la entidad matriz, filial o subrogada deberá realizar las correcciones necesarias y proceder a una nueva presentación en la que incluirán los registros que en su momento fueron rechazados. Si alguno de los registros resulta aceptado, el mensaje informático de respuesta incorporará un código seguro de verificación de 16 caracteres, además de la fecha y hora.

Artículo 5. Formato y diseño de los mensajes informáticos.

El formato y diseño de los mensajes informáticos en los que consiste la declaración de información país por país, así como los elementos en que se concrete el contenido de la misma, definido en el anexo de la presente orden foral, serán los que en cada momento consten en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se podrá acceder a través de la dirección <http://www.gipuzkoa.eus>.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. Indarrean jartzea eta aplikatzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie lehen aldiz.

Donostia, 2017ko urtarrilaren 16a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(287)

DISPOSICIÓN FINAL

Única. Entrada en vigor y aplicación.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y será de aplicación por primera vez para los períodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2016.

San Sebastián, a 16 de enero de 2017.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.
(287)

ERANSKINA

Entitate aurkezlearen identifikazioa

Sozietatearen izena IFZ

Probintzia kodea

Herrialdez herrialdeko txostena aurkezteko baldintza:

Sozietate nagusia

Entitate subrogatua

Entitate eraikitzailea

Taldearen identifikazioa

Talde multinazionalaren izena

Entitate nagusiaren izen soziala Entitate nagusiaren IFZ ondorio fiskalatarako

Finkatuta dagoen herrialdea

Ikuspegi orokorra mozkinak, zergak eta jardura ekonomikoak jurisdikzio fiskalaren arabera banatzeari buruz

Jurisdikzio fiskala	Sarrerak			Mozkinak/ (galerak) sozietate zergaren aurretik	Sozietate zerga ⁽¹⁾ ordaindua (kubxa irizpidea)	Sozietate zerga ⁽¹⁾ sortua (uneko urtea)	Aitortutako kapitala	Mozkin banatu gabeak	Langile kopurua	Aktibo ukigarriak, diruzaintza edo diruzaintzaren tresna balioak ez direnak
	Hirugarren.	Entitate lotua	Guztira							

(1) Adierazi sozietateen gaineko zerga edo, hala badagokio, horren antzekoa den mozkinen gaineko zerga.

Jurisdikzio fiskalaren arabeko agregazio bakoitzean sartuta dauden talde multinazionalen entitate guztien zerrenda

Jurisdikzio fiskala	Jurisdikzio fiskalean egoiliar diren taldeko entitateak	Eraketa edo antolaketa jurisdikzio fiskala, egoitzako jurisdikzio fiskalaren desberdina bada	Jardura ekonomiko nagusia(k)													
			Ikerketa eta garapena	Jabetza intelektualaren titulartasuna edo kudeaketa	Erosketak edo hornidurak	Fabrikazioa edo produktioa	Salmentak, komertzializazioa edo banaketa	Administrazio, kudeaketa edo laguntza zerbitzuak	Elkartu gabeko entitateei emandako zerbitzuak	Taldeko bane finantzak	Araututako zerbitzu finantzarioak	Seguruenak	Akzioen edo kapitala ordezkatzeko duten beste tresna batzuen titulartasuna	Jarduerarik gabe	Beste bat ⁽²⁾	
	1.															
	2.															
	3.															
	1.															
	2.															
	3.															

Adierazi, "informazio osagarria" atalean, taldeko entitatearen jardueraren izaera.

Informazio gehigarria

Informazio edo azalpen osagarriak sartu behar dira, laburbilduta, baldin eta beharrezkoak badira edo errazten badute herrialdez herrialdeko txostenean derrigorrez jasotako informazioa ulertzea.

ANEXO

Identificación de la entidad presentadora

Denominación social NIF

Código provincia

Condición por la que presenta el informe País por País:

Matriz
 Entidad subrogada
 Entidad constitutiva

Identificación del grupo

Denominación o nombre del grupo multinacional

Denominación social de la entidad matriz NIF a efectos fiscales de la entidad matriz

País en el que reside

Visión general del reparto de beneficios, impuestos y actividades económicas por jurisdicción fiscal

Jurisdicción fiscal	Ingresos			Beneficios/ (Pérdida) antes de Impuestos sobre sociedades	Impuesto sobre Sociedades ⁽¹⁾ pagado (criterio caja)	Impuesto sobre Sociedades ⁽¹⁾ devengado (año en curso)	Capital declarado	Resultados no distribuidos	Número de trabajadores	Activos tangibles distintos de tesorería e instrumentos equivalentes a tesorería
	Terceros	Entidad vinculada	Total							

(1) Indíquese el Impuesto sobre Sociedades o, en su caso, el Impuesto sobre Beneficios analogo.

Lista de todas las Entidades Integrantes del grupo multinacional incluidas en cada agregación por jurisdicción fiscal

Jurisdicción fiscal	Entidades integrantes residentes en la jurisdicción fiscal	Jurisdicción fiscal de constitución u organización, si es distinta de la jurisdicción fiscal de residencia.	Principales(es) actividad(es) económica(s)												
			Investigación y desarrollo	Titularidad o gestión de propiedad intelectual	Compras o suministros	Fabricación o producción	Ventas, comercialización o distribución	Servicios de administración, gestión o apoyo	Prestación de servicios a entidades no asociadas	Finanzas internas del Grupo	Servicios financieros regulados	Seguros	Titularidad de acciones u otros instrumentos representativos de capital	Sin actividad	Otra ⁽²⁾
	1.														
	2.														
	3.														
	1.														
	2.														
	3.														

(2) Indíquese la naturaleza de la actividad de la Entidad Integrante en la sección "información adicional".

Información adicional

Incluir de manera sucinta la información o explicaciones adicionales que se consideren necesarias o que faciliten la comprensión de la información preceptivamente consignada en el informe país por país